

{ asteari zeharka begira } **Izaro ZINKUNEGI BARANDIARAN**

Ausart eta aliatu

Zain-zain dago jendea, urduri. Dotore jantzita atera dira kalera: gonak gerrian, gorbatak lepoan, takoiak oinetan, txapelak eta pamelak buruan. Badira egun batzuk trajea prest zutela, baita tximeleta txiki batzuk ere sabelean. Halako zerbait eragiten du herriko jai egun nagusietako baten etorrerak. Arratsaldeko laurak harrapatu ditu plazako erlojuak. Ireki dira ateak. Hasi da zarata. Ez dago atzera bueltarik. Azpeitia da, martxoaren 2a, Elegante Eguna.

Ganadu kamioiaren ateak izan zitezkeen, urtero legez; baina ez, azoka plazakoak dira. Sokaz lotutako zezen bat atera zitezkeen herioan ibilgailutik; baina ez, gorputza lasai astintzeko gogoz gatozen lagunak sartu gara plazara. “Hementxen dala” oihuak entzun zitezkeen Erdi Kanean; baina ez, Fulana Djaren musika dantzagarria darie azokako bozgorailuei. Animaliarenean aurrean korrika ibil zitezkeen gizonak, elkar animatuz eta erronka botaz; baina ez, elkarrengana goxo bildu diren lagunak gara, brilli-brilliak bat-tak besteari betondoetan emanez.

Ezberdina izan da aurten Elegante Eguna askorentzat Azpeitian. Tradizioaren sokak estu lotzen du herria, eta ez zezenak bakarrik. Horren lekukotzak jaso ditu Eihera Kooperatibak “Oihu bat isiltasunean” liburuan, Azpeitiko Udalak sustatuta: LGTBIQ+ pertsonon banakako elkarrizketatik abiatuta, LGTBIQ+ errealitateen erradiografia osatu du. Isiltasuna, ikusezintasuna, indarkeria, beldurra, sexiltoa, erreferente falta... argi bezain gordin adierazi ditugu. Baina, horrekin batera, baita hori guztia aldarazteko gogoia eta beharra ere.

Eta horren eskutik etorri da “Astindu Armayuek”, sokamuturraren bueltako giroan eroso ez gauden herriarontzako eskaintza, LGTBIQ+ sareko kideok giro-tua eta apaindua. Azken hilabeteotan gure sarea forma hartzen joan da; elkar ezagutu, taldea osatu eta,

norbere armairuak ez ezik, herrikoak eta herria bera ere astintzeko asmoz aritu gara. Eta Elegante Egunean jarri dugu lehen mugarría, aurreikuspen denak gaindituta gainera. Sortutako giro eroso eta segurua, esperotako eta espero gabe bertaratutako jendea, zorion mezuak, uste baino lehen amaitutako edariak... Motz geratu zaigu hiru orduko festa. Itxierako lanak egin ostean, “Hementxen dala” elkar besarkatuta abestu dugu, eta hegan atera gara armairutik, gauaz batera gozatzerá.

Eta astebete eskasera, martxoaren 8an, oraindik Elegante Eguneke biharamun gozoari tiraka, Azpeitiko eta inguruko herriren batzuetako mobilizazioetan elkartu gara sareko lagunok, beste hainbatekin batera.

Eihera Kooperatibak «Oihu bat isiltasunean» liburua ondu du, Azpeitiko Udalak sustatuta. LGTBIQ+ errealitateen erradiografia osatu du. Egoera gordinak bildu ditu, baita aldaketarako gogoia ere

Martxoan, bigarren asteburuz, eraldaketa transfeminarako aldarriak egin ditugu geure. “Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak!” dio elkargune dugun pankartak; “Gora borroka feminista” oihuak entzuten dira kalean; zapi more eta LGTBIQ+ banderak astintzen ditu haizeak.

Gorde ditugu gonak, gorbatak eta takoiak armairuan; ordea, zabalik utzi ditugu hango ateak. Joan zaizkigu brilli-brilliak betondoetatik; ez, haatik, bildutako ausardia eta aldaketarako indarra. Askatu ditugu zapi moreak lepotik, baina lotuta jarraitzen dute sortzen ari garen harreman eta aliantzek. Martxoko hirugarren asteburuan sartu gara, eta ate joka dugu udaberria. Ereiten ari garena loratzen has-teko garaia da. •